



**KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK**  
**MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK**



**Dokumentu honetan “Kontratazorako Laguntzak 2023  
programan sartzeko deialdiari buruzko funtsezko  
informazioa jaso da**

**Dokumentu osoa webgune honetan irakurtzea  
gomendatzen da:**

**<https://www.bilbaoekintza.eus/eu/laguntzak>**

# Zein entitatek eska dezakete?



- Tokiko enpresek: pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, lan-zentroa eta jarduera ekonomikoa Bilboko udalerriaren lurralde-eremuan dutenak, eta honako betekizun hauek betetzen badituzte:
  - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea
  - Beste administrazio batetik edo erakunde publiko edo pribatuetatik diru-laguntzarik edo laguntzarik ez jasotzea eta jasota ez izana, deialdiaren kontratazioak formalizatzeko Gizarte Segurantzako hobariak kanpo utzita
  - Zigor- eta administrazio-zehapenik ez edukitzea



## Nolakoak dira kontratuak?

- Kontratu mugagabeen modalitatearen bidez formalizatu ahal izango dira, bai eta ikuskizun publikoetako artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuen bidez ere; halakoetan, gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izango da. Lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izango dira, baina lanaldiaren % 50ekoak izan behar dute gutxienez.
- Diruz lagundu daitezkeen kontratutzat jotzeko, kontratuak enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute eurekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurre-aurreko 6 hiletan enpresak duen batezbesteko langile-kopuruari begira. Toki erakundeak egiaztatu eta ziurtatu beharko du hori.
- Kontratazioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera egin beharko dira.
- Bilbao Ekintzak dirulaguntza emateko ebazpena ematen duenean egin behar dira contratazioak eta beti 2023ko abenduaren 31a baino lehenago.
- Bilbao Ekintzak egiaztatu eta ziurtatuko du kontratuaren iraupena 12 hilabetekoa dela, gutxienez.

# Nor kontratatu daiteke?



Kontratatu beharreko pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

**Langabezian daudenak:** Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean eta Langile Autonomoen Araubidean langile gisa alta eman gabe egotea. Baldintza hori, gutxienez, kontratazioa hasi baino egun bat lehenago bete beharko da, eta kontratatutako edo kontratatuko den pertsonaren lan-bizitzaren bitartez baliozkotuko da.

**Langabezian egoteak ez du esan nahi enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta egotea:** Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta egotea eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren egoera gauza ezberdinak dira. Baldintza hori, gutxienez, kontratazioa hasi baino egun bat lehenago bete beharko da. Ez da baliagarria beste autonomia erkidego batean enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta egon.

**Bilboko udalerrian erroldatuta egotea, eta legezko egoitza bertan izatea.** Ondorio horietarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak jasota duen helbidea hartuko da kontuan


*Hurrengo ez da diruz lagunduko: Enpresa batek langile bera kontratatzea aurreko deialdietan diru-laguntza jaso badu.*

# Zein dira laguntzak?

- Gehienez ere, **8.000 euroko laguntza** lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da.
- Ekitaldi publikoetako artista eta langile tekniko eta osagarrientzako iraupen mugatuko eta lanaldi osoko hiru hileko lan-kontratu bakoitzeko, **3.000 euroko laguntza**; lanaldi osoko sei hileko edo gehiagoko bakoitzeko, **6.000 eurokoa**.

Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da.

Zenbateko ekonomikoak % 10ean handitu ahal izango dira kontratu horiek emakumeei eginez gero.



## Zein dira laguntzak?

- Gehienez ere, **10.000 euroko laguntza** lanaldi osoko kontratu bakoitzeko eta **7.500 eurokoa** berriz, ekitaldi publikoetako artista eta langile tekniko eta osagarrientzako iraupen mugatuko eta lanaldi osoko baldin eta sei hileko edo gehiagokoak bada bakoitzeko. Denbora partzialeko kontratuen hiru eta sei hilabete bitartekoen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Talde hauetako pertsonak kontratatzen badira:

- DSBEren hartzaile titularrak edo onuradunak
  - 35 urtetik beherako pertsonak
  - Iraupen luzeko langabeak
  - 55 urtetik gorakoak
- Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da.
  - Zenbateko ekonomikoak % 10ean handitu ahal izango dira kontratu horiek emakumeei eginez gero.

# Zer dokumentazio aurkeztu behar da?



- Laguntzen deialdian parte hartzeko eskabidea bete
- Erantzukizunpeko Adierazpena
- Enpresaren IFZren fotokopia
- Udalaren legezko ordezkariaren eta NANaren fotokopia eta ahalorde-eskritura
- Eratzeko eskrituren eta eratzeko kontratuaren fotokopia, behar den moduan e
- Gizarte Segurantzako oraingo egoeraren ziurtagiria
- Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaz ordainketak egunean dituztelako ziurtagiriak
- Ekonomia-jarduera Foru Ogasunean alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua (EJZ)







## Noiz eta non eskatzen dira laguntzak?

***Eskabideak eta dokumentazioa Bilbao Ekintza EPELeko Enpresa Sustapeneko Arloari (Enplegua eta Talentua) zuzenduko zaizkio <https://www.bilbaoayudascontratacion.eus> plataformaren bitartez. Horrez gain, plataforma horretan eskatzen diren betekizun eta baldintza teknikoak bete beharko dira.***

***Eskabideak aurkezteko epea 2023ko azaroaren 27ko 10:00etan hasiko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, eta 2023ko abenduaren 15ko 15:00etan amaituko da.***



<https://www.bilbaoekintza.eus/eu/laguntzak>

Honako honi buruzko informazio guztia:

- Laguntzen eskabidea
- Eskatutako dokumentazioa
- Ematea eta ordaintzea
- Entitate onuradunen betebeharrak

Bilbao Ekintza. Enpresen Sustapena. Enplegua eta  
Talentua Arloa

Tel.: **94 420 53 21 / 94 420 53 22**

[ayudascontratacion@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:ayudascontratacion@bilbaoekintza.bilbao.eus)